
EUSKALDUNAK, EUSKALDUN!

Izkuntzak, Erriak, Etniak, Naziñoak azken baten, bereizi eta lotu be egiten dabez. Euskalerrria euskerearen inguruan sortu zan. Euskaldunen Erria! Euskereak, berak, beraz euskaldun egiten gauz, ez besterik! Geurean lez, beste munduko errietan be.

Gaur egun inguratzen gauzan industri-mundu au gero ta aurreragora doanean, euskereak, gure izkuntzak, gizarte aurreratu onetako arlo, bazter, txoko guztietara eltzen alegin aundiak egiten dauzanean, bere etxea, bere abia, bere betiko babestokia, arean da, EUSKALDUNEN AGOMINAK galtzen ei dauz.

Lenago, urte asko ez dirala, euskerea, zabaldu eiten ainbeste bide ez eukanean, euskaldunen agorik ago, minik min, parra-parra, txori bizkor, osasuntsu baten antzera egiten zan, gure gorputzaren atal bat izanik. Gure eguneroko edozein artuemonetarako erabillia: Maitatzeko erabillia, bear egiteko erabillia, eztabaidatzeko erabillia, lagunartean erabillia, bear egiteko erabillia, otoitz egiteko erabillia, madarikatzeke erabillia, goratzeko erabillia, olgetako erabillia...

Gure izakerearen, euskaldunen izakerearen bide erakuslea, bide-argia. Gure berezko nortasunaren, euskaldunenaren ezaugarriarik garrantzitsuena. Naziño ezaugarriarik sendoena.

Orain, barriz, euskalduna euskereaz aztu egin da. Inguruko erderetara jotea jako errezago, gogo-koago. Tamalgarria benetan. Negargarria. Gaurko

euskaldun elduak, amaren bularrarengandik ain kontu aundiz irakatsitako adierazpide dan gure euskereari uko eginez eta erderara jotez, kalte aundia egiten dautso euskerearen etorkizunari. Onen ondorenez, euskal umeez ez dabe, ezta neba-arreben artean, barbarik be euskeraz egiten. Ez da gure umeen artean euskerarik entzuten. Ez kalean, ezta baserrian be. Euren nagusien ardurabakoke-riagaitik. (Umeak zer ikusi, a ikasi).

Batek baiño geiagok euskerea ikastoletan, eskoletan irakatsi eta ikasten dala uste daike, eta alan-txe da, baiña, jakin bear dan gauza bat lez, bein klaseak amaituta, euren bizitzan baliorik ez daukan gauza baten antzera. Ez da erabilten, ez da egiten.

Bein, batek esan eban:

"Euskerea ez da ilko ez dakienek ez dabelako ikasten, dakienek, EUSKALDUNEK, ez dabelako egiten, baiño".

Egi biribil-biribila.

EUSKALDUNA! Zuk zeuk aldatu bear dozu euskerearenganako zeure jarrerea, jokabidea.

Aldatu eizu, bada, euskerearen aide! Bere onerako.

Ez da dirurik bear, EGIN egitea, baiño. Zagozan toki guztietan. Zure etxetik asita.

Atara eizu zure euskerea daukazun egoera larri orretatik. Besterik ez!

Bakion, 1990.eko Jorrrailaren 8an
IÑAKI MARTIARTU

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.
Kultura Saila